**Recurso 1/2016 Errekurtsoa**
**Resolución 1/2016 Ebazpena**

Lehendakaria / Presidente
Juan Ramón Ciprián Ansoalde

Kidea / Vocal
Mª Aranzazu Arana Learte

Idazkari - Kidea / Vocal - Secretaria
María Yeregui Hernández

**INGENIERÍA DE LA CALIDAD DE VIDA SL** enpresak Gizarte Politikako Departamentuari laguntza teknikoa emateko Etxetek programaren barruan laguntza teknikoak (laguntza produktuak) kudeatzeko kontratu espedientearen (08DKE-2016/01/19) lizitazio iragarkiaren, baldintza-agirien eta gainerako dokumentuen aurka jarritako kontratazio arloko errekurtso berezian, Kontratazio alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak, goiburuan adierazitako pertsonak bertan direla 2016ko apirilaren 29an egindako bilkuran, honako erabaki hau eman du aho batez:

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por INGENIERÍA DE LA CALIDAD DE VIDA SL contra el anuncio de licitación, los pliegos y los documentos contractuales del expediente de contratación del servicio de apoyo técnico al Departamento de Políticas Sociales para la gestión del programa Etxetek de ayudas técnicas (productos de apoyo) (expediente 08DKE-2016/01/19), el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada el día 29 de abril de 2016, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

## AURREKARIAK

**LEHENDABIZIKOA.-** Martxoaren 8an, (…)k INGENIERÍA DE LA CALIDAD DE VIDA SL enpresaren (aurrerantzean, ICAVI) izenean eta ordez aurkeztutako idatzi bat jaso genuen Auzitegi honetan. Eta, idatzi horren bitartez, kontratazio arloko errekurtso berezia jarri zuen ebazpen honen goiburuan adierazitako egintzen aurka.

Idatzi horrekin batera, honako dokumentazioa aurkeztu zuen: esku hartzen duen pertsonaren ordezkaritza egiaztatzen duen agiria, errekurritutako ebazpenaren kopia, eta 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateratuak (SPKLTB) 44.1. artikuluan aipatzen duen aldez aurreko iragarkiaren kopia. Errekurtsogileak bere eskubidearen oinarritzat hartu dituen agiriak ere aurkeztu zituen dokumentazio horrekin batera.

**BIGARRENA.-** Auzitegi honek errekurtsoaren kopia bat bidali zion Gizarte Politikako Idazkaritza Teknikoari, espedientea eta bidezko txostena eskatuz, SPKLTBaren 44.1 artikuluan agindu bezala.

**HIRUGARRENA.-** Martxoaren 30ean, espedientea eta Gizarte Politikako Departamentuko idazkari

## ANTECEDENTES

**PRIMERO.-** El día 8 de marzo tuvo entrada en el registro de este Tribunal un escrito por el que (…), actuando en nombre y representación de INGENIERÍA DE LA CALIDAD DE VIDA SL (en adelante, ICAVI), interpone recurso especial en materia de contratación contra los actos citados en el encabezamiento de esta resolución.

Al escrito de interposición se acompañan el documento que acredita la representación de la persona interviniente, así como copia del anuncio de licitación recurrido y del anuncio previo al que se refiere el artículo 44.1 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público aprobado por Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre (TRLCSP). Se acompañaban también los documentos en los que la recurrente funda su derecho.

**SEGUNDO.-** El Tribunal remitió una copia del recurso a la Secretaría Técnica del Departamento de Políticas Sociales y le solicitó el expediente y el correspondiente informe, tal como ordena el artículo 46.2 TRLCSP.

**TERCERO.-** El 30 de marzo se recibió en el Tribunal el expediente y el informe de la Secretaria Técnica del

teknikoaren txostena jaso genituen Auzitegi honetan. Horretan adierazi zuenez, errekurtsoaren arrazoiak aztertu ondoren, ezetsi egin behar litzatekeela ondorioztatu zuen.

**LAUGARRENA.-** Errekurtsoa eskaintza aurkeztu zuten bi lizitatzaileei bidali zitzaien, CASER RESIDENCIAL SAUri eta HERMANAS HOSPITALARIAS AITA MENNIri; eta bost egun balioduneko epea eman zitzaien alegazioak aurkezteko. Emandako epea beteta, alegaziorik ez dute aurkeztu.

## ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

### Errekurtsoaren onargarritasuna

**LEHENDABIZIKOA.-** Errekurtso hori erregulazio harmonizatuari lotua ez dagoen zerbitzu kontratuaren lizitazio iragarkiaren, baldintza-agirien eta gainerako agirien aurka jarri da. Kontratu horren balio zenbatetsia 209.000 eurotik gorakoa da; zehazki 2.825.156,64 eurokoa, BEZ sartu gabe.

Horrela bada, SPKLTBaren 40. artikuluaren 1. apartatuko b) letran eta 2. apartatuko a) letran xedatutakoaren arabera, egintza horien aurka ezar daiteke kontratazio arloko errekurtso berezia, eta Auzitegi honi dagokio errekurtso horren berri izateko eskumena, hala xedatzen baitu Kontratazio alorreko errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa sortu eta arautzeko 24/2010 Foru Dekretuak, irailaren 28koak, 2.3.a) artikuluan.

**BIGARRENA.-** SPKLTBaren 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, errekurtsoaren xede diren erabakiek kaltetu dituzten edo kalte ditzaketen eskubide edo interes legitimoen jabe diren pertsona fisiko edo juridiko guztiek jar dezakete kontratazio arloko errekurtso berezia.

Bere legitimotasuna defendatzeko errekurtsogileak dioenez, zerbitzu beraren esleipenduna izan da 2003az geroztik, eta zerbitzua ematen jarraitzen du oraindik ere. Haren esanetan, bere eskubideak eta interesak kaltetuak gerta daitezke, zeren eta:

1.- Baldintza-agirietan argitaratutako prezioek izan duten beherakada orokortuak enpresaren kostuak berriro doitu beharra ekarriko du; besteak beste, langileriaren soldata kostuak doitu beharra.

2.- Artatu beharreko eskaerak jasoko diren bermerik ez izateak kinka larrian uzten du zenbatetsitako fakturazioa.

3.- Haren iritziz, baldintza-agiriek ez dute zerbitzua emateko behar besteko langile kopurua aurreikusten.

Departamento de Políticas Sociales, en el que, tras examinar los motivos del recurso, concluye que debería ser desestimado.

**CUARTO.-** Se dio traslado del recurso a los dos licitadores que habían presentado oferta, CASER RESIDENCIAL S.A.U. y HERMANAS HOSPITALARIAS AITA MENNI, concediéndoles un plazo de cinco días hábiles para formular alegaciones. Transcurrido el plazo no se han presentado alegaciones.

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

### Admisibilidad del recurso

**PRIMERO.-** El recurso se interpone contra el anuncio de licitación, los pliegos y los documentos contractuales de un contrato de servicios no sujeto a regulación armonizada cuyo valor estimado es superior a 209.000 euros, concretamente de 2.825.156,64 euros, IVA excluido.

Por lo tanto, de conformidad con lo dispuesto en los apartados 1, letra b), y 2, letra a), del artículo 40 TRLCSP, dichos actos son susceptibles de recurso especial en materia de contratación, y la competencia para conocer del mismo corresponde a este Tribunal, por así venir establecido en el artículo 2.3.a) del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

**SEGUNDO.-** A tenor del artículo 42 TRLCSP, podrá interponer el correspondiente recurso especial en materia de contratación toda persona física o jurídica cuyos derechos o intereses legítimos se hayan visto perjudicados o puedan resultar afectados por las decisiones objeto de recurso.

En defensa de su legitimación la recurrente afirma que desde el año 2003 ha sido la adjudicataria de este mismo servicio, que continúa prestando en la actualidad. Alega que sus derechos e intereses pueden resultar afectados toda vez que:

1.- La bajada generalizada de precios publicados en pliegos va a forzar un nuevo ajuste de costes en la empresa, entre ellos los costes salariales de la plantilla de personal.

2.- La ausencia de garantías de recepción de demanda a atender pone en grave riesgo la facturación estimada.

3.- Los pliegos contemplan una plantilla de personal insuficiente, a su juicio, para la prestación del servicio.

4.- Subroga daitezkeen langileen zerrendak ez ditu barnebiltzen benetan subroga daitezkeen langile guztiak.

5.- Inbertsio berri inplizituak daude, baina horien kostua ez da aurreikusi.

6.- Ez da aurreikusi erantzukizunak garbituko direla bermatzeko neurririk.

7.- Geldialdi teknikoa sortzeko arriskua dago; eta ondorioz, fakturaziorik ez izateko arriskua, entregak egiteko produktu-eskasia handia aurreikusten baita.

8.- Zerbitzuari lotutako gastuak ez dira enpresaren gastu orokorren barruan onartu, zerbitzuaren funtzionamendura bideratzen diren proportzio berean.

Gizarte Politikako Departamentuko idazkari teknikoak bere txostenean dioenez, epea bukatu arren errekurtsogileak ez du eskaintzarik aurkeztu. Hala ere, SPKLTBaren 42. artikuluaren literalak ez ditu lizitatzaileak aipatzen, aurkatutako erabakiek ukitu edo kaltetu ditzaketen pertsona fisiko edo juridiko guztiak baizik.

Txosten horren arabera, errekurtsogilea legitimatua dago errekurtsoa jartzeko; izan ere, bere zenbatespenarekin efektu positiboa (etekina) lor dezake, esate baterako, lizitazioan parte hartu eta kontratu berriaren esleipendun suertatzea; edo efektu negatiboa (kaltea) ekiditea, esate baterako, subrogatu ezin diren langileek lana utziz gero, bidezko lan kostuak bere gain hartu beharrik ez izatea.

Argudio horiek ikusita, Auzitegi honen iritzia da errekurtsoa jarri duen pertsonak betetzen duela SPKLTBaren 42. artikuluan ezarritako legitimazio baldintza.

**HIRUGARRENA.-** Errekurtsoa SPKLTBaren 44.2 artikuluaren a) eta c) letretan aurreikusitako hamabost egun balioduneko epean jarri da, kontuan hartuta lizitazioaren iragarkia 2016ko otsailaren 22an argitaratu zela Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta kontratuko baldintza-agiriak eta gainerako dokumentuak ere egun horretan bertan argitaratu zirela Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontratatzailearen profilean.

**Auziaren mamia**

**LAUGARRENA.-** Diputatuen Kontseiluak 2016ko urtarrilaren 19ko bilkuran erabaki zuen Gizarte Politikako Departamentuari laguntza teknikoa emateko

4.- La lista de personal subrogable no reconoce todo el personal subrogable real.

5.- Hay implícitas nuevas inversiones cuyo coste no se contempla.

6.- No se prevén medidas para garantizar la depuración de responsabilidades.

7.- Existe riesgo de paro técnico y consiguiente riesgo de no facturación por previsión de gran escasez de producto para el servicio de entregas.

8.- No se reconocen los gastos asociados al servicio como los gastos generales de la empresa en la proporción que se destinan al funcionamiento del servicio.

En su informe la Secretaria Técnica del Departamento de Políticas Sociales señala que, finalizado el plazo, la recurrente no ha presentado oferta, pero añade que el artículo 42 TRLCSP no se refiere literalmente a los licitadores sino a cualquier persona física o jurídica cuyos intereses se vean afectados o perjudicados por las decisiones impugnadas.

Considera que la recurrente está legitimada para interponer el recurso porque con su estimación podría obtener un efecto positivo (beneficio) como es el de licitar y resultar adjudicataria del nuevo contrato, o evitar un efecto negativo (perjuicio) como sería asumir unos costes laborales en caso de cese de parte del personal no subrogable.

A la vista de estos argumentos el Tribunal estima que el recurso ha sido interpuesto por persona que reúne el requisito de legitimación establecido en el artículo 42 TRLCSP.

**TERCERO.-** El recurso se ha interpuesto dentro del plazo de quince días hábiles previsto en el artículo 44.2, letras a) y c), TRLCSP, si se tiene en cuenta que el anuncio de licitación fue publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 22 de febrero de 2016 y que en esta misma fecha se publicaron en el perfil del contratante de la Diputación Foral de Gipuzkoa tanto el anuncio de licitación como los pliegos y el resto de documentos contractuales.

**Fondo del asunto**

**CUARTO.-** Por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 19 de enero de 2016 se aprobó el expediente de contratación del servicio de apoyo técnico al

Etxetek programaren barruan laguntza teknikoak (laguntza produktuak) kudeatzeko kontratu espedientea onartzea, baldintza administratibo berezien agiria eta ezaugarri teknikoen agiria ere barne dituela; eta kontratua esleitzeko prozedura irekia abiarazi zen. Lizitaziorako iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2016ko otsailaren 22an.

Departamento de Políticas Sociales para la gestión del programa Etxetek de ayudas técnicas (productos de apoyo), que incluye los pliegos de cláusulas administrativas particulares y de prescripciones técnicas, y se dispuso la apertura del procedimiento abierto para la adjudicación del contrato. El anuncio de licitación fue publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 22 de febrero de 2016.

Kontratuaren xedea zehaztasun osoz adierazita dago ezaugarri teknikoen agirian. Horretan azaltzen denez, Gizarte Politikako Departamentuak programa bat dauka laguntzako produktuak edota diru-laguntzak emateko, ezintasun eta mendekotasun egoeran dauden pertsonei, eguneroko jarduerak egin behar dituztenean beren autonomian eta irisgarritasunean laguntzeko

El objeto del contrato viene definido con precisión en el pliego de prescripciones técnicas, en el que se explica que el Departamento de Políticas Sociales dispone de un programa de provisión de productos de apoyo y/o ayudas económicas para favorecer la autonomía personal y la accesibilidad en las actividades de la vida diaria a los colectivos de personas con discapacidad y/o en situación de dependencia

Programa hori, gaur egun, 2008ko abenduaren 23ko 87/2008 Foru Dekretuan arautua dago, horrek arautzen baititu ezgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonentzako Etxean programako banakako laguntzak (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2008ko abenduaren 31koa).

En la actualidad el programa está regulado por el Decreto Foral 87/2008, de 23 de diciembre, por el que se regula la concesión de ayudas individuales del Programa Etxean dirigidas a personas con discapacidad o en situación de dependencia (Boletín Oficial de Gipuzkoa de 31 de diciembre de 2008).

Ezaugarri teknikoen agirian xehetasun osoz adierazita daude programa behar bezala gauzatzeko egin behar diren jarduerak, kontratatzaileari dagozkionak barne direla; eta baita jarduera horiek nola egin behar diren ere. Agiri horretan adierazten da programa aldatu egiten dela edukiari eta bolumenari dagokionez, eskaeraren arabera, hain zuzen ere aurrekontu bati lotuta dagoelako eta aurrekontu hori aldatu egiten delako ekitaldi batetik bestera.

El pliego de prescripciones técnicas detalla de manera pormenorizada las actividades a realizar para la correcta ejecución del programa, entre ellas las que corresponden al contratista, así como la forma en que habrán de llevarse a cabo. Advierte de que el programa es variable en su contenido y volumen, en función de la demanda, y está sujeto a un presupuesto cuya cuantía puede ser distinta en cada ejercicio en función de las disponibilidades.

**BOSGARRENA.-** Errekurtsogileak kontratazio arloko errekurtso berezia jarri du zerbitzu kontratuaren lizitazio iragarkiaren, baldintza-agirien eta gainerako agirien aurka. Hala, alderdi horien deuseztasuna edo deuseztagarritasuna aitortzeko eskatu du, hainbat arrazoi emanda.

**QUINTO.-** Contra el anuncio de licitación, los pliegos y los documentos contractuales la recurrente interpone recurso especial en materia de contratación en el que solicita que se declare su nulidad o anulabilidad, para lo cual alega diversos motivos de impugnación.

Errekurtsoan egin diren alegazio batzuk zerbitzu bera emateko aurrez egindako kontratuei buruzkoak, eta aurreko kontratua gauzatzearekin lotutakoak dira.

Algunas de las alegaciones del recurso se refieren a cuestiones relativas a contratos anteriores del mismo servicio y a la ejecución del contrato precedente.

Alegazio horiek guztiek errekurritutako egintzen legezkotasunean eraginik ez dutenez, Auzitegi honen eskumenean ez da sartzen gai horri buruzko irizpena ematea.

En la medida en que todas estas alegaciones en nada afectan a la legalidad de los actos recurridos, no compete a este Tribunal pronunciarse al respecto.

**SEIGARRENA.-** Errekurtsogilearen esanetan, enpresak ordainsariak jaitsi izana zerbitzuei lotutako langileen kostuak jaisteko erabili da, eta ondorioz, zerbitzu horien kostuak jaisteko. Haren iritziz, inbertsio berriak egin beharko dira, eta horrek garestitu egingo ditu zerbitzuaren kostuak; beraz, are handiagoa da argitaratu diren prezioen eta errealitatearen arteko desoreka.

**SEXTO.-** Alega la recurrente que la bajada salarial aplicada por la empresa se ha utilizado para bajar los costes de personal asociados a los servicios y de esta manera los precios de los mismos. Aduce que serán necesarias nuevas inversiones que aumentarán los costes del servicio, por lo que el desfase entre los precios publicados y la realidad es aún mayor.

Lizitaziorako gehieneko prezioa eta kontratuaren aurrekontua, baldintza administratibo berezien agiriaren karatularen 6. apartatuan zehaztutakoak dira.

Sistema mistoa da: oro harreko prezioa, jarduera egituratuaz ezagutzen diren horien multzo osorako; eta banakako prezioak gainerako jarduera bakoitzerako.

Lizitaziorako prezio horiek Departamentuko Ituneko Atalak 2015eko abenduaren 1ean egindako txosten ekonomikotik atera dira. Txosten horretan azaltzen da langileen gastuak, ibilgailuenak eta beste hainbat kontzeptupeko gastuak nola kalkulatu diren, gastu guztien gaineko % 3ko mozkin-marjina teorikoa utzita.

Lizitaziorako prezio horiek lortzeko, ezaugarri teknikoen agirian jasotako jarduera bakoitza egiteko behar den denbora aplikatu zaie langileen eta ibilgailuen kostuei; hau da, ETXETEK Programa kudeatzeaz arduratzen den Etxean Laguntzeko Atalak zenbatetsitako kostuak. Eta jarduera bakoitzaren gastuari, askotariko gastuek langileen eta ibilgailuen gastuen guztizkoan duten ehunekoa (% 16,95) erantsi zaio, mozkin-marjina teorikoa (% 3) bezalaxe.

Departamentuak jakinarazi duenez, esku-artean dugun zerbitzu kontratu hau bezalakoen lizitaziorako oinarrizko aurrekontuak jaso behar dituen kontzeptuak berariaz ezartzen dituen araurik ez dagoenez, errekurtsogileak berak emandako datuetan oinarritutako balorazio ekonomikoaren emaitza izan da ipinitako prezio hori.

SPKLTBaren 87. artikuluan ezarritakoaren arabera, Sektore publikoko kontratuetan, kontratistaren ordainsaria prezio zehatza izango da; eta kontratazio organoek, kontratua benetan bete dadin, prezioa egokia izatea zainduko dute, zenbatekoaren balioespen egokia eginez. Horretarako, lizitazio aurrekontua finkatzerakoan, merkatuko prezio orokorra hartuko dute kontuan, eta, hala badagokio, balio anormal edo neurrigabeekiko eskaintzei buruzko arauak aplikatuko dituzte (1.apartatua). Bestetik, kontratuaren prezioa adierazteko, unitateko prezioak erabili ahal izango dira, prestazioaren osagaiei edo entregatzen edo gauzatzen diren prestazioaren unitateei dagozkienak, edo bestela, kontratuaren prestazio guztiei edo batzuei aplika dakizkiekeen honenbesteko finko bateko prezioak (2. apartatua).

Bereziki zerbitzu kontratuei dagokienez, SPKLTBaren

Los precios máximos de licitación y el presupuesto del contrato se determinan en el apartado 6 de la carátula del pliego de cláusulas administrativas particulares (PCAP).

Se trata de un sistema mixto: un precio alzado para el conjunto de las llamadas actividades estructuralizadas y unos precios unitarios para cada una de las restantes actividades.

Los precios de licitación resultan de la memoria económica elaborada por la Sección de Concertación del departamento el 1 de diciembre de 2015, en la que se explica cómo se ha realizado el cálculo de los costes de personal, de vehículos y de otros gastos por diversos conceptos, con un margen teórico de beneficio del 3% sobre el total de los gastos.

Para obtener los precios de licitación aplica a los costes de personal y de vehículos los tiempos necesarios para desarrollar cada una de las actividades incluidas en el pliego de prescripciones técnicas, que son los estimados por la Sección de Apoyo en el Domicilio, responsable de la gestión del Programa ETXETEK; y suma al gasto de cada actividad el porcentaje que suponen los gastos diversos sobre la suma de los costes de personal y de los vehículos (16,95%), así como el margen teórico de beneficio (3%).

Según informa el departamento, al no existir norma expresa que establezca los conceptos que deba contener el presupuesto base de licitación de los contratos de servicios como el presente, el precio ha sido el resultado de la valoración económica realizada en base a los datos suministrados por la propia recurrente.

El artículo 87 TRLCSP dispone que en los contratos del sector público la retribución del contratista consistirá en un precio cierto y que los órganos de contratación cuidarán de que el precio sea adecuado para el efectivo cumplimiento del contrato mediante la correcta estimación de su importe, atendiendo al precio general de mercado, en el momento de fijar el presupuesto de licitación y la aplicación, en su caso, de las normas sobre ofertas con valores anormales o desproporcionados (apartado 1). Y que podrá formularse tanto en términos de precios unitarios referidos a los distintos componentes de la prestación o a las unidades de la misma que se entreguen o ejecuten, como en términos de precios aplicables a tanto alzado a la totalidad o a parte de las prestaciones del contrato (apartado 2).

Para los contratos de servicios en particular, el artículo

302. artikuluan xedatutakoaren arabera, baldintza administratiboen agirian finkatuko da zerbitzu kontratuaren prezioa zehazteko sistema. Hainbat aukera dago: prestazioaren osagaiei buruzkoa izatea, gauzatze-unitateei buruzkoa izatea edo denbora-unitateei buruzkoa izatea; edo, horrela xehekatzea ezinezkoa bada edo komeni ez bada, honenbesteko finko bat ezartzea, edo tarifa jakin batzuk aplikatuz zehaztea, edo aukera horietako bat baino gehiago aplikatzea.

302 TRLCSP dispone que en el pliego de cláusulas administrativas se establecerá el sistema de determinación del precio, que podrá estar referido a componentes de la prestación, unidades de ejecución o unidades de tiempo, o fijarse en un tanto alzado cuando no sea posible o conveniente su descomposición, o resultar de la aplicación de honorarios por tarifas o de una combinación de varias de estas modalidades.

Hori guztia kontuan hartuta, ez dugu antzeman kontratuen prezioa arautzen duen araudiaren urraketarik; izan ere, lizitaziorako gehieneko prezioak, bai banakakoak eta bai oro harrekoak, Administrazio kontratatzaileak egindako balorazio ekonomiko arrazoituan oinarrituta zehaztu dira, zerbitzua ematen ari den enpresak berak emandako datuak abiapuntutzat hartuta betiere.

A la vista de todo ello, no se aprecia vulneración alguna de la normativa reguladora del precio del contrato toda vez que la determinación de los precios máximos de licitación, tanto los unitarios como el alzado, ha resultado de la fundada valoración económica realizada por la Administración contratante con base en los datos suministrados por la empresa que actualmente presta el servicio.

Errekurtsogileak nabarmendu du argitaratutako prezioen eta errealitatearen artean desoreka dagoela, zerbitzua emateak gaur egun eragiten dituen kostuak kontuan hartuta. Baina kontua da, errealitate hori bultzatzen duena eta neurri handi batean baldintzatzen duena, errekurtsogileak zerbitzua eman duen urteetan zehar ezarri duen negozio eredua dela, Departamentuak adierazten duen bezala. Lizitaziorako gehieneko prezioak, eta oinarrizko aurrekontuak, errekurtsogilearen baldintza ekonomikoak kaltetzeko gai izateak, ez du inolako zerikusirik errekurritutako egintzen legezkotasunarekin.

La recurrente pone de relieve un desfase entre los precios publicados y la realidad, con base en los costes en que incurre en la prestación actual del servicio, pero lo cierto es que esa realidad a la que se refiere responde y depende en gran medida, como señala el departamento, del modelo de negocio que ha implantado a lo largo de los años en los que lo ha prestado. El hecho de que los precios máximos de licitación y el presupuesto base de licitación del nuevo contrato pudieran, en su caso, empeorar las condiciones económicas de la recurrente en nada afecta a la legalidad de los actos recurridos.

Hori guztia dela-eta, errekurtsogileak azaldutako argudioek ez dute aukerarik ematen, lizitaziorako prezioak kontratua benetan betetzeko ez direla egokiak ondorioztatzeko, edota merkatuko prezio orokorretik urrun daudela erabakitzeko. Are gutxiago, bi lehiakidek eskaintza aurkeztu dutela ikusita.

Por todo ello, los argumentos esgrimidos por la recurrente no permiten concluir que los precios de licitación sean inadecuados para el efectivo cumplimiento del contrato o estén alejados del precio general de mercado. Menos aún cuando se da la circunstancia de que han sido dos los licitadores que han presentado oferta.

Ez da ahaztu behar, halaber, baldintza administratibo berezien agiriak berak parametro objektiboak aurreikusi dituela, prezio anormalak edo neurriz kanpokoak sartzearen ondorioz aurkeztutako eskaintzak bete-ezinak izan ez daitezen kontrolatzeko. Ikus, ildo honetan, 17.1 eta 19.1 artikuluak.

No cabe olvidar, además, que el propio PCAP contempla parámetros objetivos para controlar que las ofertas presentadas no puedan ser incumplidas como consecuencia de la inclusión de valores anormales o desproporcionados. Véanse al respecto las cláusulas 17.1 y 19.1.

**ZAZPIGARRENA.-** Errekurtsogilearen esanetan, baldintza-agiriek agerian uzten dute departamentuaren konpromisorik eza gutxieneko eskaera bat bermatzeko; ondorioz, fakturazioa ez dago bermatua baina, aldiz, langileria mantendu egin behar da derrigorrez, eta zerbitzu honetarako esklusibotasun baldintzetan gainera. Aitortzen du zaila dela eskaera bermatzea, baina esaten du espero den fakturazioa lortzeko badaudela baldintza-agirietan aurreikusi ez diren sistemak. Baina ez du zehazten zeintzuk diren.

**SÉPTIMO.-** Alega la recurrente que los pliegos evidencian una ausencia de compromiso de demanda mínima por parte del departamento, lo que hace que la facturación prevista no esté garantizada, mientras que la plantilla, sin embargo, es de obligado mantenimiento y además en condiciones de exclusividad para este servicio. Reconoce la dificultad de garantizar la demanda pero dice que para garantizar la facturación esperada existen mecanismos que han de estar contemplados en pliegos y no lo están, aunque no concreta cuáles.

Gai honi gagozkiola, ezaugarri teknikoen agiriaren XII. klausula aipatu behar dugu, "Jardueraren bolumena" izenekoa. Klausula horretan, lehiatzaileek kontuan hartu ahal izango dituzten datu batzuk ematen dira, orientazio gisa: 2013ko eta 2014ko ekitaldietan izandako jarduera mailak, pertsona onuradunen kopuru datuak eta produktu kopurua ere emanda, programak dituen lau jarduera faseetako bakoitzean.

Departamentuak adierazitakoaren arabera, ordea, horrek ez du esan nahi beharrezkotzat jo den langile kopurua zifra horietan oinarrituta kalkulatu denik. Departamentuak aurreikusitako jardueraren bolumenaren arabera beharrezkotzat jo den langileria, ezaugarri teknikoen agiriaren II. eranskinean ageri da, eta hori, ICAVIk emandako informazioaren arabera, 2015ean langileek (enpresakoak edo azpikontratatuak) zerbitzuan emandako ordu kopurutik ateratzen dena baino gehiago da, orotara hartuta.

Ulertzekoa da enpresek zifren segurtasun bat bilatzea, eta Administrazioarengandik gutxieneko fakturazioa bermatuko duen konpromiso bat jaso nahi izatea; baina hortxe dago, hain zuzen ere, SPKLTBaren 215. artikuluan aipatzen den arrisku eta menturaren printzipioaren funtsa.

**ZORTZIGARRENA.-** Errekurtsoan dio baldintza-agirietan ez dela aitortzen zerbitzu eskaerari benetako erantzuna emateko behar den gutxieneko langileria; eta hori arrazoitzeko, taula bat erantsi dio idatziari. Taula horren arabera, 2015ean izandako jardueraren bolumenari erantzun ahal izateko, 20,8 pertsona beharko lirateke lanaldi osoan, eta ez 16,5 pertsona, agirietan aurreikusi den moduan.

Aurreikusitako jardueraren bolumenaren arabera beharrezkoa izango den langileria kalkulatzeko, honako premia zenbatetsi da ezaugarri teknikoen agiriaren II. eranskinean: urtean 5.217 ordu orientazioaren arloan; 5.352 ordu administrazioan; 17.038 ordu arlo teknikoan; eta 1.752 ordu koordinazio lanetan. Hau da, guztira 29.359 ordu urtean; eta ordu kopuru hori 1.752 orduko lanaldiaz zatikatuta, 16,76 pertsona ateratzen dira lanaldi osoan.

Gorago adierazi dugun bezala, zifra horrek gainditu egiten du, ICAVIk emandako datuen arabera bere langileek (propioak eta azpikontratuak) kontratua gauzatzeko 2015ean eman zuten ordu kopurua. Guztira 27.647 ordu izan ziren, hau da, 15,78 pertsonari dagokiona, lanaldi osoan.

Beraz, lanaldi osoko 20,8 pertsona beharko liratekeen hori, alderdi baten iritzi soila da besterik gabe, ICAVIk Administrazio kontratatzaileari eman dizkion datuekin bateraezina eta kontraesankorra; eta jakina, ez dator

